

# Iraunkortasun Plana 2023



Aurkezpena



# AURKEZPENA

IRAUNKORTASUN  
PLANA

2023

Petronor



# Legezko Oharra

Iraunkortasun Plan Global honek ekintza-multzoa du helburu eta oso-osorik ala zati batean legeak eskatzen duenetik urrunago doa. Beren helburua garapen iraunkorrari ekarpena egitea da. Repsol taldeko enpresa partaideek horiei guztiei aurre egin eta betetzeko asmo irmoa dute. Hala eta guztiz ere, betetzeko orduan aldatu, atzeratu edo indargabetzeko ahalmena gordetzen dute, legezko erantzukizunik izan gabe. Ildo horri eutsiz, kasu horiek jendaurrean justifikatzeko konpromisoa hartzen dute.

© PETRONOR, S.A. 2023: Eskubide guztiak gordeta daude. Agiri hau Petronor, S.A.ren jabetzakoa da eta oso-osorik edo zati batean erreproduzi daiteke bakarrik merkataritza-helbururik gabe hedatzeko bada.

<b>1</b>	Iraunkortasunaren gure ikuspegia .....	4
<b>2</b>	Garapen Iraunkorraren helburuak .....	6
<b>3</b>	2022ko Iraunkortasun Plana .....	8
	<b>3.1</b> Laburpena .....	8
	<b>3.2</b> Aldaketa klimatikoa.....	9
	<b>3.3</b> Ingurumena .....	15
	<b>3.4</b> Berrikuntza eta teknologia.....	19
	<b>3.5</b> Eragiketa segurua.....	23
	<b>3.6</b> Pertsonak .....	27
	<b>3.7</b> Etika eta gardentasuna .....	30
<b>4</b>	Plana eguneratzeko prozesua .....	32


Mundu jasangarriarekin konpromisoa duen konpainia izateko xedea dugunez, 2022an, geure **Jasangarritasun Politika** berrikusi dugu, eta, bertan, 2050ean isuri garbirik ez duen konpainia izateko eta bidezko iragaitza energetikoko liderrak izaten jarraitzeko daukagun konpromisoa hartu dugu kontuan, ezinbestekoa delako pertsonen funtsezko eskubideak gauzatzeko.

Gure politika gure **Jasangarritasun Ereduaren** inguruan antolatzen diren barruko arau eta prozeduren bitartez garatzen da. Eredu hori nazioarteko estandarretan dago oinarrituta, geure interes-taldeekin etengabe hitz egitean ingurumenaren, gizartearen eta gobernantzaren arloan antzematen ditugun gai nabariak hartzen ditu kontuan eta hortxe dago geure erabakiak hartzen ditugunean.

Ariketa hau urtero egiten dugu, eta behar besteko ekimenak sortzea du helburu, geure balio-katean gizartean eta ingurumenean sortzen ditugun ondorio onak handiagotzeko eta ondorio txarrak txikiagotzeko.

Horrelaxe sortzen dira **Jasangarritasun Planak**, ekintza-plan publikoak eta gaur egungoak, gure konpromisoen adierazgarri direnak, eta, gero, geure aurrerakuntzen berri ematen dugu bertan. **Jasangarritasun Plan Globala** gure ibilbide-orria da, eta, hortik abiatuta, herrialde edo gune industrial bakoitzerako **Tokiko Jasangarritasun Planak** egiten ditugu, lan egiten dugun leku bakoitzeko inguruabar eta premia zehatzak kontuan hartuta.

**Iraunkortasun Plana** Petronorren Iraunkortasun Ereduaren **sei ardatzen** inguruan egituratzen da.



## Aldaketa klimatikoa

2050ean isuri garbirik ez daukan konpainia izan nahi dugu



## Ingurumena

Energiarik eraginkorrena sortzeko ezinbesteko baliabideak kontsumitzen ditugu, ahalik eta eragin txikienarekin



## Berrikuntza eta teknologia

Berrikuntza sustatzen dugu eta aurrerapen teknologikoak eranstean ditugu gu eta gure ingurunea hobetu eta hazteko



## Eragiketa segurua

Gure langileen segurtasuna, kontratistena, bazkideena eta tokiko erkidegoarena bermatzen dugu



## Pertsonak

Pertsonen aldeko apustua egiten dugu, eta haien garapena zein lan egiten duguneko erkidegoena sustatzen ditugu



## Etika eta gardentasuna

Gauden toki guztietan arduraz eta zintzotasunez jarduten dugu

Petronorren, Nazio Batuen Erakundeak 2015ean onartutako **2030erako Agenda** sustatzen dugu, baita bertako Garapen Jasangarrirako 17 Helburuak (GJH) ere. Agenda global horrek honako hauxe du helburu: txirotasunari amaiera ematea, planeta babestea eta jende guztiaren oparotasuna hobetzea. Petronorren, bete-betean lan egiten dugu, erakundeko maila eta negozio guztietan integratzeko, geure Jasangarritasun Politikan hartu dugun konpromisoaren arabera.

Energiaren lorpenean, garapen sozioekonomikoaren sustapenean eta klima-aldaketaren eraginak murrizteko ekintzan dugun zereginagatik, **7., 8. eta 13. GJHetan** egiten ditugu geure ahalegin nagusiak. Horrez gain, **6., 9. eta 12. GJHei** ematen diegu lehentasuna, eta berrikuntzaren, kudeaketa jasangarriaren eta baliabideen erabilera eraginkorraren aldeko apustua egiten dugu geure eragiketetan.

Urtero, Nazio Batuen 2030erako Agendan egiten dugun ekarpena argitaratzen dugu **GJH Txostenaren** bidez. Bertan agertzen diren adierazle, proiektu eta lekukotasun ugariak maila globalean eta tokian-tokian egiten dugun ekarpenaren erakusgarri dira. GJH txostenak hementxe daude eskuragarri: [www.repsol.com](http://www.repsol.com).

2030erako Agendari dagokionez oraindik ere erronkarik badagoela badakigunez, 2021ean, IPIECAn parte hartu genuen, **petrolioaren eta gasaren sektorerako GJHen ibilbide-orria egiteko**. 2022an, Petronorrek sektoreko ibilbide-orriarekin nola bat egin duen ebaluatu dugu, non gauden eta gure ahalegin nagusiak zer gaitan egin behar ditugun jakiteko eta, horrela, hurrengo urteetan GJHetan aurrera egiten jarraitzeko.



Tokiko testuingurua kontuan hartuta **Plan** honetan zehaztutako **ekintzek 2030eko Agenda** babestea dute xede, honako helburu hauek jorratzean:



Petronor





# 16

EKINTZA



**Aldaketa klimatikoa**

EKINTZA

# 5



**Ingurumena**

EKINTZA

# 3



**Berrikuntza eta  
teknologia**

EKINTZA

# 3



**Eragiketa segurua**

EKINTZA

# 2



**Pertsonak**

EKINTZA

# 2



**Etika eta  
gardentasuna**

EKINTZA

# 1

Gizartea bezala, kezkatuta gaude giza jarduerak kliman daukan eraginagatik, eta **konpromiso irmoa** daukagu Pariseko Hitzarmenarekin, baita industrializazioaren aurretiko maileri dagokienez planetaren batez besteko tenperaturaren igoera **2°Cren azpitik** mugatzeko daukan asmoarekin ere.


Azken hamarkadotan, posizio aurreratua eratu dugu Repsolen, iragaitza energetikoari eta klima-aldaketaren aurkako borrokari dagokienez.

Hartara, Repsol sektoreko lehenengo konpainia izan da Kyotoko Protokoloari babesa ematen eta 2050ean isuri garbirik ez daukan konpainia izateko guraria duela jakinarazten.

Iragaitza energetikoa aurrekaririk gabeko erronka da. 'Trilema energetikoa' dugu aurrez aurre, mix energetikoa deskarbonizatu behar delako eta, aldi berean, energia-hornikuntza fidagarri bezain merkea bermatu behar delako.

Gure ustez, teknologia eta digitalizazioa funtsezkoak izango dira, 2050ean isurien neutraltasuna lortzeko orduan. Bertan, gainera, honako hauek izango dira deskarbonizazioaren sustatzaile nagusiak: gaur egungo eragiketen eraginkortasun energetikoa hobetzea, elektrifikazio berriztagarria sustatzea, erregai berriztagarriak bultzatzea (hidrogenoa, bioerregai aurreratuak eta erregai sintetikoak) eta karbonoa atzematea, erabiltzea eta biltegitratzea.

Klima-aldaketaren arazoa konpontzea erronka handia da gizartearentzat. Repsolek irtenbidearen parte izan nahi duenez, helburu zehatzak dituen ibilbide-orria diseinatu du, eta horren betearazpenean ari da aurrera egiten.





### EKINTZA

Gasolioaren eta kerosenoaren hondar-beroa atzematea, egindako produktuen karbono-aztarna murrizteko.



### AZALPENA

Findegiko destilatu ertainen unitatean (gasolioa eta kerosenoa) findutako produktuaren hondar-beroa erabiliko dugu, finketa-unitate horretan sartzen den lehengaia aurretiaz berotzeko. Horrela, gas naturalaren kontsumoa murriztuko dugu; eta, horren ondorioz, prozesu horren karbono-aztarna ere bai.



### ADIERAZLEAK

1. Eraldaketa amaitzea eta 2023ko azaroan jarduera egiten hasia.
2. Prozesu honetan, urteko 8.381 tona CO<sub>2</sub>ren isuria murriztea.



### GIHEKIKO EKARPENA:





### EKINTZA

Naften hondar-beroa atzematea, egindako produktuen karbono-aztarna murrizteko.



### AZALPENA

Produktuaren hondar-beroa erabiliko dugu nafta fintzeko daukagun unitatean, unitate horretan sartzen den lehengaia aurretiaz berotzeko. Horrela, gas naturalaren kontsumoa murriztuko dugu; eta, horren ondorioz, prozesu horren karbono-aztarna ere bai.




### ADIERAZLEAK

1. Eraldaketa amaitzea eta 2023ko azaroan jarduera egiten hasia.
2. Prozesu honetan, urteko 2.000 tona CO<sub>2</sub>ren isuria murriztea.



### GIHEKIKO EKARPENA:





## EKINTZA

Labeen hondar-beroa atzematea, egindako produktuen karbono-aztarna murrizteko.



## AZALPENA

Aire-aurreberogailua jarriko dugu, gasolinak fintzeko 2. unitateko labeetan gas naturalaren errekuntzaren hondar-beroa atzemateko. Horrela, gas naturalaren kontsumoa murriztuko dugu; eta, horren ondorioz, prozesu horren karbono-aztarna ere bai.



## ADIERAZLEAK

1. Eraldaketa amaitzea eta 2023ko azaroan jarduera egiten hasia.
2. Prozesu honetan, urteko 4.392 tona CO<sub>2</sub>ren isuria murriztea.



## GIHEKIKO EKARPENA:





### EKINTZA

Erregaien fabrikazioan, bio produktuak erabiltzea.



### AZALPENA

Bio jatorriko produktuak erabiliko ditugu erregaiak egiteko orduan, bai lehengai moduan bai amaitutako erregaien osagai moduan. Horrela, jatorri berriztagarriko lehengaien kopurua handituko dugu ez-berriztagarrien ordean.



### ADIERAZLEAK

Bio jatorriko 2.000 tona erabiltzea erregaien fabrikazioan.



### GIHEKIKO EKARPENA:





### EKINTZA

Energia fotovoltaikoa sortzeko tokiko erkidego energetikoak eratzea.



### AZALPENA

Sorkuntza elektriko fotovoltaikorako tokiko erkidego energetikoak (TEE) eratuko ditugu, hurbileko autokontsumoa bultzatzeko eta jatorri berriztagarriko erabilgarritasun energetikoa handitzeko.



### ADIERAZLEAK

1. Autokontsumorako tokiko 30 erkidego eratzea.
2. Instalaturako orduko 5 MWetara iristea.
3. 50 udalerritan erkidego energetikoen ezarpena lortzea.



### GIHEKIKO EKARPENA:




Planetaren garapen jasangarriarekin konpromisoa duen konpainia energetiko globala izateko xedearen barruan, Ingurumen Politika berria onartu dugu Petronorren, eta, horren bidez, jendaurrean adierazten dugu gizarteari energia zein produktuak hornitzeko behar besteko konpromisoa dugula, ingurumenaren babesa behar bezalakoa dela bermatuta eta baliabideak era jasangarrian erabilia.

Horretarako, behar besteko ekintzei ematen diegu lehentasuna, eragin kaltegarriak prebenitzeko eta eragin onak sustatzeko, bai geure eragiketetan bai bezeroei eskaintzen dizkiegun produktu eta zerbitzuetan. Hori dela eta, honako haxe bultzatzen duten neurriak sustatzen ditugu: kapital naturalaren babesa, ekonomia zirkularren printzipioen ezarpena, eraginkortasun energetikoa eta klima-aldaketaren aurkako borroka.

Horrez gain, honako honexetarako konpromisoa ere hartzen dugu geure politika berrian:

- **Hondakinen** sorrera ahalik eta gehien murriztea eta, horretarako, behar bezala kudeatzea, zabortegira eraman beharrean berrerabilera eta birziklapena lehenesteko.
- **Biodibertsitatea** babestea eta zaintzea eta, horretarako, ekosistemen zein bertan hornitutako baliabide eta zerbitzuen gaineko eraginak nahiz mendetasunak gutxitzea.
- **Ur-baliabideen** kudeaketa jasangarria izatea.
- Azken teknologiak ezartzea, gure eragiketek eta produktuek **airera egindako isuriak** gutxitzeko.

Eragiketak egiteko lizentzia sozialari eustea dugu helburu, geure balio-kate osoan jasangarriak garela egiaztatzeko, bai geure proiektu eta eragiketetan, bai geure bezeroen esku jartzen ditugun produktu eta zerbitzuetan. Horretarako, arintze-hierarkian oinarritutako ingurumen-kudeaketarako neurriak ezartzen ditugu, eta, bertan, ingurumen-kudeaketarako oinarritzko tresna da ondorioak prebenitzea eta murriztea, baita gure eragiketak garatzen direneko ingurunea leheneratzea ere.







## EKINTZA

Uraren berreskurapena hobetzea eta Bilbao-Bizkaia Ur Partzuergotik datorren kontsumoa murriztea.



## AZALPENA

Lanean jarraituko dugu, Findegiko Uren Araztegia (FUA) hirugarren mailako sistematik datorren uraren berreskurapena hobetzeko eta, horrela, Bilbao-Bizkaia Ur Partzuergotik datorren ur freskoaren kontsumoa murrizteko.



## ADIERAZLEAK

Kontsumitutako ur freskoaren m<sup>3</sup> / prozesatutako lehengaien t parametroan, 0,74ko ratioa lortzea.



## GIHEKIKO EKARPENA:





## EKINTZA

Muskizko udalerriko araztegitik datorren ur araztua erabiltzeko azterlana egitea.



## AZALPENA

Tokiko hiri-araztegian birsortutako ura berrerabiltzeko azterlana egingo dugu, Petronorreko instalazioko zenbait zerbitzutan erabiltzeak zer aukera eskaintzen dituen jakiteko eta ur gordinaren gaur egungo hornikuntzaren alternatiba izateko. Uraren Euskal Agentziarekin (URA) lan egingo dugu enpresen eta erakundeen ACLIMA-Basque Environment Cluster elkartearen bitartez.



## ADIERAZLEAK

Azterlana egitea eta bere ondorioak 2023ko abenduan aztertzea.



## GIHEKIKO EKARPENA:





## EKINTZA

Boluntarioen bidez, suteak suntsitutako baso-gainazala berritzea.



## AZALPENA

Basoko sutean erretako lursaila berrituko dugu baso atlantikoko bertako espezieen bidez, biodibertsitatearen galera berrezartzeko. Jarduera Mello izeneko onura publikoko mendian garatuko da, honako hauexekin biodibertsitatearen galera eta bere zerbitzu biosistemikoak berrezartzeko: Bizkaiko Ingurune Naturala Kudeatzeko Saila, Muskizko Udala eta "El Cerro" izeneko borondatezko lanerako gizarte-erakundea.



## ADIERAZLEAK

1. Erretako basoko bi hektarea berrituko ditugu.
2. Gutxienez, berrehun ikasle boluntario mobilizatuko ditugu.



## GIHEKIKO EKARPENA:



**Berrikuntza teknologikoa** funtsezkoa da, eredu energetiko jasangarriagoak eratzeko eta geure produktu zein zerbitzuen deskarbonizazioaren erronkari aurre egiteko.

**Repsol Technology Lab** Espainiako I+Gko eredu pribatu abangoardistenetakoa da, eta, bertan, bete-betean lan egiten da, konpainia moduan deskarbonizaziorako zehaztu dugun asmo handiko helburua lortzen lagunduko diguten teknologia antzemateko, balioztatze eta garatzeko.

Gure ikerlanaren osagarri, **Corporate Venturing** inbertsio-fondoa eta berrikuntza-estrategia irekia ditugunez, aliantzak ezartzen ditugu mundu zabaleko zentro teknologiko, enpresa eta unibertsitateekin.

2022an, Repsolek kanpoko venture kapitaleko fondo berria jaulki zuen fondo korporatiboaren osagarri. Arrisku-kapitaleko inbertsio-fondo berri hori, **Net Zero Ventures**, Suma Capitalekin sortu zuen, deskarbonizaziorako zein ekonomia zirkularrerako teknologietan dago oinarrituta eta 150 milioi eurorainoko kapitala izango du. Bi fondoak lagungarriak izango dira ekosistema ekintzailea bultzatzeko, iragaitza energetikoa azkartzen duten teknologia antzemateko eta 2050ean isuri garbirik ez edukitzeko.

Horrez gain, Repsolek Oil&Gas sektorean dituen bazkideekin parte hartzen du **OGCI Climate Investmentsen** (OCGI-CI), eta konprometitutako 1.000 milioi dolarretik gorako inbertsioa startupetan bideratzea dauka helburu, hornikuntza energetikoarekin lotutako berotegi-efektuko gasen isurien murrizketaren bidez klima-aldaketari aurre egin ahal izateko.

Era berean, 2017an sortu zenetik, **Repsolen Digitalizaziorako Programak** konpromiso irmoa dauka jasangarritasunarekin, negozio-unitateen eraldaketa digitala sustatzeko eta jarduera-kate osoan balioa sortzeko.





## EKINTZA

Erregai sintetikoen ekoizpenerako lantegia eraikitzeko proiektua.



## AZALPENA

Erregai sintetikoen ekoizpenerako instalazioak eraikitzeko proiektua idatziko dugu, eta, bertan, hidrogeno berriztagarria (H<sub>2</sub>) nahiz atzemandako karbono dioxidoa (CO<sub>2</sub>) erabiliko ditugu lehengai moduan, 2050ean isuri garbirik ezaren helburua lortzeko eta, aldi berean, teknologia zein ekoizpen-eredu berrien ezarpena sustatzeko.



## ADIERAZLEAK

1. E-fuels Proiektuaren oinarrizko ingeniari-tza egitea.
2. 10 MW-ko elektrolizadorearen eskaintza eskatzeko prozesua abian jartzea.



## GIHEKIKO EKARPENA:





### EKINTZA

Ekoagregakinak fabrikatzeko eraikuntza-proiektua.



### AZALPENA

Hondakinak lehengai moduan erabilia, karbono dioxidoa (CO<sub>2</sub>) finkatzeko instalazioen eraikuntzarako proiektua betearaziko dugu. Lortutako produktua, ekoagregakina izenekoa, erabiliko dugu obra zibila egiteko. Horrela, ekonomia zirkularra sustatzaile moduan erabilia, geure gunea deskarbonizatzeko jarraitzen dugu lanean.



### ADIERAZLEAK

Lantegiaren eraikuntzarako baimenak izapidetzeko beharrezkoa den informazioa prestatzea: 2023ko apirila.

Eraikitzen hastea: 2023ko abendua.



### GIHEKIKO EKARPENA:





## EKINTZA

Mugikortasunerako purutasuna duen hidrogeno berriztagarria ekoiztea.



## AZALPENA

Muskiz-Abanto-Zierbenako findegian kokatutako 2,5 MW-ko elektrolizadorearen bidez, mugikortasunerako purutasuna duen hidrogeno berriztagarria ekoizteko eraikitako instalazioetako ekoizpen-jarduerari emango diogu hasiera, eta hidrogeno hori ibilgailu elektrikoetarako erregai-pilan erabiliko da.



## ADIERAZLEAK

Probak egitea eta 2023ko ekainean abian jartzea.



## GIHEKIKO EKARPENA:




Bere **jarduera** guztiak garatzeko orduan, Petronorrek **pertsonen segurtasuna zein osasuna eta ingurumenaren babesa** hartzen ditu **funtsezko balioztat**, benetan uste duelako istripu guztiak prebenitu eta ekidin daitezkeela.

Azken urteotako etengabeko ahalegin horren ondorioz segurtasuneko jarduna nabarmen hobetu den arren, gure jardueren izaeragatik istripu larriak jasateko arriskua daukagu. Hori dela eta, segurtasuna hizpide dugunean, etengabe jartzen ditugu abian **hausnarketarako eta ikaskuntzarako mekanismoak**, hobekuntzaren aldeko tentsioari eusteko, geure programen eraginkortasuna bermatzeko eta edozein konformismo-sentsazio saihesteko.

Munduko gaur egungo testuinguruan, gizartea **digitalizatzeko prozesua azkartu egin denez**, eragiketa digitalak ere izan behar dira seguruak. Beste faktore batzuen artean, nazioarteko egoera geopolitikoak, Ukrainako gatazkak edo ziurgabetasun ekonomikoak mehatxuak garatzeko eta eragile berriak agertzeko arrazoiak elikatzen dituzte. Digitalizazioaren merkatua larregi berotu denez, ziurgabetasuna sortzen da teknologia berri moduan, baita nekez jarraitu daitekeen bilakaera-eritmoa ere. Testuinguru horretan, gero eta garrantzitsuagoa da zibersegurtasuna.

Hamarkada bat baino gehiago daramagu geure informazioaren teknologiak eta prozesuak **hobetzeko eta egokitzeko zikloetan** lan egiten. Era berean, etengabe bilakatzen eta korapilatzen den ingurunea dela ere badakigunez, ahalegina egonkortu beharrean, areagotu egin dugu ziklo bakoitzean.







### EKINTZA

Petronorreko bertako sistematikaren bidez, instituzio publikoekin lan egitea suteak itzaltzeko prestakuntzetan.



### AZALPENA

Bizkaiko suhiltzaileen parkearekin batera egingo dugu prestakuntza, Petronorreko larrialdietarako sistematika instituzio publikoek segurtasun-zeregin bererako dituzten baliabideekin integratzeko.



### ADIERAZLEAK

Petronorreko bertako sistemari buruzko prestakuntza egitea eta, horretarako, instituzio publikoetako suhiltzaileak ere gonbidatzea.



### GIHEKIKO EKARPENA:





### EKINTZA

Larrialdietarako simulakroa egitea eta, bertan, instituzio publikoetako suhiltzaileek parte hartzea.



### AZALPENA

Larrialdietarako simulakroa egingo dugu Bizkaiko Foru Aldundiko Suteak Itzaltzeko Zerbitzuarekin batera. Bi baliabideak, Petronorrekoak bertakoak eta kanpokoak, integratzea da helburua, baterako ustezko jarduketetan behar bezala koordinatu ahal izateko.



### ADIERAZLEAK

Simulakroa egitea eta, bertan, Bizkaiko suhiltzaileek, Ertzaintzak eta SOS-DEIAKek parte hartzea.



### GIHEKIKO EKARPENA:



# 2023ko Iraunkortasun Plana

## Eragiketa segurua



### EKINTZA

Segurtasun-kulturaren diagnostikoa egitea.



### AZALPENA

Ekintzak, elkarrizketak eta inkestak egingo ditugu Petronorreko langileekin, portaera seguruaren barruratzeko-maila zehazteko eta geure segurtasun-kulturaren etengabeko hobekuntza sustatzeko.



### ADIERAZLEAK

Azterlana amaitzea: 2023/10/1a.



### GIHEKIKO EKARPENA:



Gure langileak, erkidegoak, gure merkataritza-harremanak eta gure bezeroak gure Jasangarritasun Ereduaren funtsezko ardatza dira. Badakigu Petronor osatzen duten pertsonak gure **abantaila lehiakor nagusia eta konpainia jasangarria izateko gakoa direla**.

Honako honexen aldeko apustua egiten dugu: aukera-berdintasuna, langileetan oinarritutako talentu dibertsoaren kudeaketa, bizitza profesionalaren eta pertsonalaren arteko oreka, prestakuntza zein garapena eta talentuaren erakarpena nahiz euspena.

Enpresa-jarduera gero eta zorrotzagoa den eta gero eta informazio gehiago duen ingurune sozialean garatzen da, eta konpainiok ahalegindu egiten gara gurekin elkarreragina duten eragileekin **harreman sendoak** ezartzen, baina, batez ere, gure eragiketetatik hurbil dauden erkidegoekin, honako honexetan oinarrituta daudela kontuan hartuta: errespetua, sentsibilitate kulturala, osotasuna, erantzukizuna, gardentasuna, fede ona eta ez-bereizkeria.

Petronorren, **giza eskubideak errespetatzen** jarraitzeko konpromisoa hartzen dugu, gure jarduerak eta erabakiak inguruko pertsonen kalterako izan ez daitezen eta, halakorik gertatuz gero, ahal den guztia egin dadin kalte hori konpontzeko.





## EKINTZA

Inguruko tokiko instituzioekin lan egitea, Petronorrek berariazko ponpaketa-sistemak erosteko eta, horrela, gertatu daitezkeen uholdeei aurre egiteko.



## AZALPENA

Ura ponpatzeko ekipamendu berria erosiko dugu, eta bateragarria izango da euri-ura bideratzeko udal-sistemekin, uholdeak gertatzen direnean inguruko udalekin lan egiteko. Horrela, uholde-euriaren ondorioz sortutako egoera horietan ondare pribatu eta publikoak jasandako kalteak gutxitu ahal izango dira.



## ADIERAZLEAK

1. 2023an, ponpaketa-zentroan beharrezkoa den ekipamendua erostea.
2. Segurtasuneko operadore guztiak prestatzea, ekipamendu hori behar bezala erabili dezaten.



## GIHEKIKO EKARPENA:





### EKINTZA

Lanbide Heziketako nahiz unibertsitateko ikasleei praktikak edota prestakuntza duala egiteko erraztasunak ematea.



### AZALPENA

Lanbide Heziketako nahiz unibertsitateko ikasleei praktikak edota prestakuntza duala egiteko erraztasunak emango dizkiegu, enpleguaren sorrera eta talentuaren garapena sustatzeko asmoz.



### ADIERAZLEAK

1. Unibertsitateko 4 ikasleri praktikak edota prestakuntza duala egiteko aukera ematea.
2. Lanbide Heziketako Goi Graduako 4 ikasleri praktikak edota prestakuntza duala egiteko aukera ematea.



### GIHEKIKO EKARPENA:



Zuzentasunez dihardugu agerpena daukagun herrialde guztietan. Geure jokabide etikoan, legearen betearazpen zorrotza ez ezik, bere espiritua ere hartzen dugu kontuan.

Ardatz honetan, behar besteko helburuak zehazten ditugu, konpainiak Petronorreko langile guztientzat eta gure hornitzaile, kontratista zein enpresa laguntzaileentzat **osotasunaren eta erantzukizunaren kultura** sustatu eta suspertzen duela bermatzeko.

Horrez gain, gardentasuna eta egoeraren azalpena Petronorreko Jasangarritasun Ereduaren elementu bereizgarriak dira guretzat. **Sinesgarria izateko, funtsezkoa da beti-beti gardena izatea.**





### EKINTZA

“Etikari eta Jokabideari” buruzko prestakuntza-ikastaroa egitea.



### AZALPENA

Petronorreko langile guztiok Repsoleko Etika eta Jokabide Kodeari buruzko prestakuntza-ikastaroa egingo dugu, lan-eremuko portaeretan balio etikoak sendotzeko asmoz.



### ADIERAZLEAK

2023an Petronorreko langileen %85ek ikastaroa egin dutela ziurtatzea.



### GIHEKIKO EKARPENA:





## **Iraunkortasun Plana dokumentu dinamikoa da**

Urtero, plan hau osatzen duten ekintzen lorpen-mailaren berri emango dugu, eta, horretarako, amaierako txostena argitaratuko dugu.

Bestetik, gure alderdi interesdunentzat kezkarriak diren gaiak edo aurreikuspenak aldagarriak direnez eta urtean jazotako gertaeren bilakaerarekin lotuta daudenez, plan hau urtero eguneratuko da ekintza berrien bidez, edo, bestela, indarrean daudenak zehaztuko dira berriro, egoera berrira egokitu ahal izateko.



Petronor

[www.petronor.eus](http://www.petronor.eus)

